

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Honako negozio-eredua entregatzeko, Zutik hainbat baliabide erabitzen ditu, esate baterako:

Baliabide fisikoak: lokala, josteko makinak, produktuak/ jantziak sortzeko beharrezko lehengaiak (oihalak, aria, botoiak, etabar) edo produktu erdibukatuak (jendeak entregatutako jantziak).

Giza baliabideak: enpresako bazkideek gure enpresan egingo dugun lanaz gain, hiru pertsona kontratauko ditugu, bik arropa egingo dute lokaleko tailerlean, hau da, lokalaren atzeko zatian, eta bestea dendan bertan egongo da produktuak saltzen eta bezeroen beharrei erantzuten.

Finantza baliabideak: gure aurrezkiak erabiltzen saiatuko gara, baina, hauek nahikoa izango ez balira, mailegu bat eskatzeko prest gaude, horrela gure proiektuak finantzatzeko.